

11. Arana Goiri'tar Sabin

1865-1903, abandotarra

Komunikazioaren egilea: zenbait

11.1. Bizitza



[Wikipedian](#) Sabinen biografiarekin 50 bat orrialde daude. Beraz, zaila da kartzelan hartu zuen gaixotasun bategatik 38 urterekin hil zen (zuten) Sabinen bizitza ganoraz laburtzea.

Sabin nahiko ezaguna da arlo politikoan izan zuen eraginagatik eta nazionalismo modernoa abian jartzeko arlo guztiak jorratzeagatik: sinbologia (ikurrina, "euzkotarren aberria Euzkadi da" esaldi famatua, ereserkia...), EAJ alderdia sortzeagatik eta, proiektu hori zabaltzeko, kazetari eta argitaratzaile moduan izugarritzko lana egiteagatik.

Baina historialari moduan eta baita gure hizkuntzaren alde egin zuen lana ez da ia ezagutzen, adibidez, euskeraren jatorrian egin zituen ekarpenak edo hizkuntza normalizatzeko egindako ekintzak.

Horretan Manuel Larramendirekin duen paralelismoa handia da. Biak

Larramendi eta Arana, garbizaleak zirela esanda, etengabe baztertzen dituzte eta euskerarako izan zuten izugarritzko eragina kareletik bota nahi dute. Alegia, ez dute gaia osotasunean ikusi nahi eta Larramendik bere proposamenekin edo Aranak proposatutako "txadon", "urrutizkin" "izparringi" eta beste neologismo batzuk sortzeagatik lan kaltegarria egin zutela iradokitzen digute. Baina gero, Arana "izparringi" berba sortzeagatik kritikatzeko dutenek ez dute arazorik "egunkari" hitza erabiltzeko, edo "ikastola" edo "euskaltegia" eta horrelako ehunka neologismo. Izan ere berba edo adiera berririk sortzen ez duen hizkuntza eta dena kanpotik literalki kopiatzen duena bere sena galdu duela adierazi nahi du.

Euskeraren normalizazioan egin zuen lanik garrantzitsuena grafia batzeko saiakerak izan ziren, hizkuntza batzeko lehenengo oinarri gisa. Baina arrazoi linguistikoengatik baino arrazoi politikoengatik (batzuk karlistak eta beste batzuk nazionalistak ziren) Aranaren grafia batzeko prozesuak ez zuen aurrera egin. Hau da Hendaiako biltzar famatuan esan zuena:

"Euzkera zutitu eta bizitzeko nahitanahiezko bi gauza daude: bizitzarako beharrezkoa egitea, bai zirkulu handi zein txikian, bere lurraldearen barnean, eta beharizan horiei erantzuteko gai egin dezagula. Aurrenekoa alboratu, eta euzkera literatura hizkuntza bat izan ahalko da, aberatsentzako luxuzko objektua, hizkuntzalari, historialari eta arkeologoentzako zientzia lanabes bat, baina behin ere ez da herriaren hizkuntza izango, hizkuntza bizia. Bigarrenari kasurik ez egin, eta euzkera denbora batez euskal lurreko arrantzale, baserritar eta artzainen hizkuntza izaten jarraituko du; baina alde guztietatik neolatindar hizkuntzek zapaldua eta arrantza, artzaintza eta nekazaritzaz mintzatzeko besterik balio ez duela, azkar atzeratzen joango da [...] denborarekin desagertuz, eta ziurrenik hurbileko data batean."

Hizkuntza normalizatzeko bi hanka behar zirela esan zuen:

Euskal herriko agintariei eta aberatsei dagokie bertako hizkuntzaren erabilera beharrezko bihurtzea. Prozedura, berriz, erraz asmatzen da; lehenengo eta behin, euren bulego, lantegi eta lanpostuetan langileak hartzeko orduan, euskara dakitenak hobestea, lehenbiziko aldian, eta euskara jakitea ezinbesteko baldintza gisa jartzea, geroxeago. Hasieran oztopo izugarriak aurkituko dituzte eta jasan beharko dituzten kalte ekonomikoak ere ez dira huskeria izango; baina xede gorenak betetzeko bidean beti aurkitzen dira oztopo latzak. Aberriarenganako maitasuna, maitasun guztiak legez, bihotz zabaltasun eta eroapenaren bidez erakusten da, eta gurea bezalako aberri zorigaitzoko batean abertzale-tasuna heroien bertutea da, neke eta pairamen asko

berekin dakartzana.”

[Hendaiako hitzaldia euskeraz](#) [Hendaiako hitzaldia gazteleraz \(jatorrizkoa\)](#)

Euskalkien babeslea zen eta nolabaiteko aitortpena behar zutela esan zuen, garaiko (eta gaur egungo) euskeralari askoren iritziaren aurka.

Esan beharra dago euskaldunberria izan zela eta ahalegin handiak egin zituela ikasteko eta hobetzeko.

Batek esan zuen moduan, “Ordu arteko irakurle guztiak baino irakurle gehiago ekarri zizkion Sabinok euskerari.”

11.2. Argitalpenak



Sabinek idatzitako liburuetatik euskeraren jatorriarekin lotuta bi liburu idatzi zituen:

- Etimologías euskéricas, Bartzelona, 1887
- [Tratado Etimológico de los Apellidos Euskerikos](#), 1895
- Pliegos Euskéricos, Bartzelona, 1888

Euskera lantzeko beste liburuak:

- Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino, Bilbo, 1897.
- Umiaren Lelengo Aizkidia, Bilbo, 1897.

Gainerako liburuak (historia, politika...):

- [Bizkaya por su independencia. Lau Loria Aberkoj](#), Bilbo, 1892
- El Partido Carlista y los Fueros Vasco-Nabarro, Bilbo, 1897.
- Egutegi Bizkaitarra, Bilbo, 1898.
- Libe, Bilbo (1903).

Egunkari eta aldizkariak

- [Bizkaitarra](#) (1893-1895), [Baserritarra](#) (1897), [El Correo Vasco](#) (1899), La Patria (1901-1903) eta Patria (1903).
- Euzkadi aldizkaria (1901).

Hil ondoren, bere lanetan oinarritua izendegia Luis Elizaldek *Deun Ixendegi Euzkotarra* argitaratu zuen, proposatutako izenek arrakasta handia izan dutelarik: *Ander, Andoni, Endika, Iker, Imanol, Iñaki, Irune, Gaizka, Gorka, Gotzone, Jasone, Jone, Josune, Julen, Karmele, Kepa, Koldo...*

11.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

a) ARI = argia

ARI Sabinenetzat ARGIA esan nahi du eta hortik 150 bat hitz eta 11 toponimo sortu direla proposatu zuen Sabineek. Hitz abstraktu guztiek, gaur egun erro bihurtu direnak, jatorriz izena izenak dira, gero adjektiboak eta azkenik, izen abstraktuak. Bere ustez, egi-ren jatorrizko esanahia *argia* da eta dagokion adjektiboa: *argia*.

Gaur egun *argia* hitza dugu, baina, seguruenik, aurretik *ari* izan zitekeen bien iturburua.

Horrela, *ari* errotik honako hitzak sortu dira: *argi, agi, adi, ali, ergi, egi, edi, eli...* *argiren* esanahia zabalduz:

- Argi: *g* bat silaben artean gehitu ondoren
- Agi: (aurkikuntza), *g* silaba gehituz baina *r* desagertuz
- Egi (errealitatea), aurrekoaren aldaketa berdina baina gero, *a* hizkia *e* bihurtuta
- Adi (adimena), *r* hizkia *d* bihurtuta
- Arime (arima), *ari* eta *me* dira bere osagaiak: argitasun edo su sotila

b) Hitz batzuen proposamen etimologikoak

ABEGI: abegia. AU (posesioa) eta EGI (izaera-agerpena): aitortza edo posesio adierazpena.

ANTZ: antza. ATZen aldaera

ARGIZAGI: ilargi hitzaren sinonimoa. ARGi (materiala) eta AGI (agerpena). Argia agertzea (aparición de luz)

ARGIZAR: argizaharra. ARGi eta IZAR. Hau da, argi izarra (estrella de luz), ilunabarra baino lehen ikusten delako.

ATZ: hatza. ATZ (adierazlea)

ATZARRI: iratzartuta esnatuta. ATZ (argia), AR (hartu), I (determinatzailea). Argia duena.

AZAL: azala. AZ (izatea-agerpena) eta AL (gabezia). Kanpokoa, muinekoa ez dena, azala.

AZI: hazia. AZ (izatea-agerpena) eta I (determinatzailea). Adierazten duena, sortzen duena.

AZKAR: indartsua. AZ (sua, indarra), K (eufonikoa) eta AR (izaera). Indartsua.

BEGI: begiak. BI (kopurua) eta EGI (argia). Bi argi.

BIZI: bizirik. B (Uren aldaera, jabegoa), IZ (izatea) eta I determinatzailea. Errealitatea duena.

EDIREIN: aurkitutakoa. EDI (argia) eta EDI, R (eufonikoa) eta EGIN. Ikusitakoa, adierazia.

EDUR: edurra. EDI (argia) eta OR (joera). Zuritzailea.

EGUR: egurra. EGI (argia) eta OR (egokia, joera). Argia (emateko) egokia.

GOIZ. Goiza. GO (goian) eta IZ (argia). Gorantz doan argia.

ILARGI / LARGI / IRARGI / IDARGI / IRETARGI: ilargia. IL (iluntasuna) eta ARGi (argia). Iluntasunaren argia.

ITZ: hitza, adierazpena

ITZAL. Itzala, gerizpea. ITZ (argia) eta AL (gabezia). Argirik eza.

IZAN: izatea. IZ (izatea-agerpena), A eufonikoa eta N determinatzailea. Adierazia, izan badena.

IZAR: izarra. IZ (argia) eta AR naturaren ezaugarria. Izaki argitsua.

IZEKI. Erreta. IZ (sua) eta EKI (eduki, edukitzea). Sua izan duena.

IZEN: izena. IZ (izatea-agerpena), E eufonikoa eta N determinatzailea. Benetako gauza baten adierazpena.

IZOR: haurdun dagoen emakumea. IZ (izatea-agerpena) eta OR (joera). Izateko, erditzeko dagoena.

IZPI: izpia. IZ (argia), PI (Biren aldaera) mehea, sotila. Argi mehea.